

## Fakturazioa euskaraz egiteko laguntza eta bultzada

Azken eguneratzea: Ostirala, 03 Abendua 2021 19:26

Argitaratua: Ostirala, 03 Abendua 2021 18:51

---



Ticket bai sistema digitalaren ezarpenarekin fakturazioa euskaraz egin ahal izango da

Beasaingo Udala, Aittu euskara elkarteak eta merkatarien lankidetzari esker bultzatu den ekimena da

Beasaingo Udalak, Aittu! Euskara Elkarteak eta Bareak Beasaingo Merkatarien Elkarteak dei zabala egin nahi diete datorren urtetik aurrera Ticket Bai fakturazio sistema jarri beharrean diren erakunde eta eragile guztiei, fakturazio sistema hori abian jar dezaten.

Merkatarien hizkuntzarekiko atxikimendua bultzatzeko eta bide batez hizkuntza paisaia establezimenduetan euskalduntzeko, "Ticket bai" fakturazio sistemarako euskarazko softwarea erosteko diru laguntzen oinarriak eta deialdia egitea onartu zuen osoko bilkurak eta orain sistema honen erabilera sustatzeko agerraldia egin dute Leire Artola alkateak, Patxi Saez Aittu elkarteko presidentek eta Bareak elkarteko ordezkariak.

**Udalak diruz lagunduko duen ekimena**

## **Fakturazioa euskaraz egiteko laguntza eta bultzada**

Azken eguneratzea: Ostirala, 03 Abendua 2021 19:26

Argitaratua: Ostirala, 03 Abendua 2021 18:51

---

Leire Artola alkateak azaldu duenez, “Beasaingo Udalak euskararen ezagutza eta sustapenean duen konpromisoari atxikiz, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetan orain arte hizkuntza paisaia euskalduntzeko eskaintzen diren laguntzei batzen zaio Ticket bai ekimena”. Artolak nabarmendu du, errotulu, erosketa poltsak eta web orriak euskaratzeko laguntzei batzen zaiela euskaraz fakturatzeko sistema berria. Software hau jartzeko, merkatariei kostuaren %30arekin lagunduko zaie (gehienez 250 euro). Euskaraz fakturaziorako erraminta hau euskaraz jarritz, baliabide baterako laguntza jasoko dute hala eskatuko duten udalerriko merkataria eta zerbitzu enpresek eta bidenabar euskararen erabilera sustatzeko baliagarri izango da. Laguntzetarako eskaerak udaletxearekin harremanetan jarritz egin ahal izango dira Helbide elektronikoko hau spam roboten kontra babestuta dago. JavaScript aktibatuta eduki behar duzu hau ikusteko. helbidera idatziz edo 943 028050 zenbakira deituz.

### **Fakturak euskaraz egin eta eskatu**

Patxi Saez Aittu euskara elkarteko presidenteak bere aldetik euskararen erabileran paradigma aldaketa bat eman behar dela nabarmendu du. “Beasaindarrok pausoa eman eta jarrera urratzailea izan behar dugu euskararen erabileran. Harremanen ardatza euskaraz izatea nahi badugu gaur aurkeztu dugun bezalako zerbitzuak euskaraz ematea garrantzitsua da, Beasainen euskaraz bizi nahi dugulako”.

Aittu! Euskara Elkartek bideo bat egin du Ticket Bai euskaraz jardadin sustatzeko eta bideoa prentsaurrekoan aurkeztuko da. Bertan agertzen diren leloak euskara aro digitalaren erdigunean egon behar duela eta fakturak euskaraz eskatzeko deia egiten dute. Finean, kontuak euskaraz ateratzera eta euskara aldatzera gonbidatzen du bideoak.